

## XABIER ERKIZIA

### Soinu gordeen arrastoan, Stephen Vitiello

*“ Musika pieza gehienak aurretik grabatutako soinuekin osatuak daude. Gutxi batzuk beraien soinuak kaosarekin topatzerakoan sortzen dituzte, bai hasi aurretik, prehistoria gisara; edo beraien prozesu arriskutsuetan, dagoeneko entzunda dauzkan soinu batzuen edo guztien iturria erakutsiz. ”*

*Jalal Toufic*

Azken urteotan teknologia berriek ia gure bizitzen atal guztietan berebiziko garrantzia hartu dute, dijitalizazioaren eta naturalizazioaren arteko borroka gisako bat bezala defuni dezakegun momentu hontara ailegatu arte. Beso, begi edo belarri berriak bailiran, gure zati bihurtzen ari diren tresnak guztiz onartu edo ekiditzearen arteko borrokan bizi gara. Izan nahi dugunaren eta garenaren arteko lehian.

Baina ez da nere nahia amerikar musika talde famatu baten izenari jarraituz, makinaren aurkako gurutzada bat hastea ezta naturaltasun erradikalaren aldeko ohiuak zabaltzea, bi ertz hauen arteko erlazioan sakontzea edo erreparatzea baizik, beti ere artearen inguruan.

Azter dezagun bada, momentu batez, fenomeno honek gure entzumenean, ingurunean eta ondorioz musikan izan duen eragina.

1967. urtean R. Murray Schaefferrek esaldi adierazgarri batekin eman zion hasiera izenburu ponposoa duen *Tuning of the world* liburuari:

“Munduaren ingurune sonoroa aldatzen ari da”. Esaldi honek, aski modu garbian gainera, azken aldiaren etengabe errepikatu dugun teknologia berrien “iraultzei” egiten die erreferentzia, alegia, gaur egun, gizakia inoiz ezagutu ez duen soinu ingurunean bizi dela erakustera eman nahi du. Baina hortaz gain, Kanadako irakasle honek errandakoak bertze erreflexio bat egitera eramaten gaitu, inguruan ditugun soinuei erreparatzera eta hauek suposatzen dutenaz ohartzera bultzatzen gaitu, bertze hitzetan entzutera bultzatzen gaitu.

Ekologia akustikoan gehiegi sakondu gabe, hau ere ez baita idatzi honen helburu nagusia, zuzenean ezaugarri hauek musikaren, eta bereziki abangoardiako musikaren munduan izan duten eragina ikus dezakegu.

Alde batetik, teknologia berriek eskaini dituzten abantailek soinua modu amaigabearen erabili eta prozesatzeko aukera erraza eman diote musikariari, beharbada inoiz imajinatu ahal izanen ez zuen tresna sortuz. Honek aldiberean, orain arte eta lehenbiziko bistadan, instrumentu akustikoek (edo hezkuntza klasikoak erran beharko genuke?) ezarritako mugak ezabatu ditu, orain arte musikaren, nolabaiteko hegemonia gidatu duten estiloen gainetik, hainbat eta hainbat joera edo ikuspegi desberdinez betetako nazioarteko eskena zabala sortu arte. Ezaugarri guzti hauek musikari belaunaldi berri bati ireki dizkiete ateak, estiloak, teknikak, soinu iturriak, kokapenak, komunikazioak eta ideak nahasteko beldurrik ez duen belaunaldi bati, eta zorionez (hasiera batean behintzat) musikaren industrian baino espermentazioan oinarritu den belaunaldi bati.

Artistikoki, medio berriak eskuratzeak ere (grabaketa tekniken aurrerapena, norberak lanak editatu baita argitaratzeko aukera, estudio portatila..) Murray Schaefferrek errandakoan sakontzeko bide berriak ireki ditu, ageriko soinuez gain mikrosoinuei erreparatzen jartzeko eta beraiekin lan egiteko aukera eskaini duten arabera.

Soinu, nolabaiteko izkutu eta kasu aunitzetan desagertzeko puntuan daudenak hoi bilaketan, Stephen Vitiello artista amerikarraren lana izan da beharbada, azpimarragarrienetako bat.

Stephen Vitielloren musika ibilbidea soinu iturrien eta hauen erabilpen nahiz prozesamenduen inbestigazioan koka dezakegu. Instrumentu analogiko eta akustikoak elementu guztiz elektronikoekin eta landa grabaketa naturalekin nahasiz, Vitielloren konposizioek soinu paisaia sakonetan murgilarazten dute entzulea.

1964an jaioa, hasiera batean bere burua gitarrajole bezala aurkeztu zuen New York-eko artista hau, beti ere nagusiki musikan oinarrituz, mota, formatu eta soporte anitzeko artista dela erran genezake. Bere proiektuen artean bideotarako musikak, interneterako lanak, soinu instalazioak, bilduma eta dokumentazio lanak, workshopak eta noski, diskak aurki ditzazkegu,

Bertzeak bertze izen haundiko musikari, artista eta koreograforekin egin izan du lan, halanola, Nam June Paik, Merce Cunningham, Scanner, Tony Oursler, John Cage, Jem Cohen, Pauline Oliveros, Rebecca Moore, John Jasperse...

*"Listenable avant-garde music"* New York Press

1995ean bere lehenbiziko lana argitara eman zuen eta geroztik pasa den denbora tarte labur horretan, ia dozena bat diska egin ondotik, bere izena nazioarteko espermentazaleen eskenan erreferentzia bihurtu da. Dena den, hasieran erakutsitako oinarritzko premisei jarraituz bere lana etengabeko eboluzio batean oinarritu da, soinu iturrien azterketen arloan bereziki.

Beharbada, lan guzti hauen artean, eta zoritxarrez, musikarengatik baino bertzelako gertakariengatik, *Bright and dusty things* da bere lan sonatuena eta, dena erran beharra dago, borobilena. 1999an *World Views* sariaren ordainean Stephen Vitiellok New York-eko *World Trade Center* eraikina zenaren 91. solairuan egin zuen soinu instalazioaren emaitza gisa atera zuen argitara lan eder hau *New Albion* labelak. Geroztik gertatu diren gertakariak alde batera utzita, diska honek bere lana modu bikainean laburbiltzen du, berau ulertzeko aztarna garbiak erakusten baititu.

Hala bada, aldi hartan eraikinaren soinu ixilak (eta ez hain ixilak) bilatu eta aurkitzeko ahalegina egin zuen New Yorkeko artistak. Solairuko leihoetan kontaktu mikrofonoak ezarri eta fotozelulen eta teleskopio baten bitartez eraikitako osziladore gisako batetaz baliatuz, Vitiellok eraikuntzaren eta honen ingurune hurbilaren "soinu izkutuak" jaso nahi izan zituen.

*"World Trade Center-eko egonaldiaren kasuan, soinuak bazeudela konturatu nintzen, baina eskuraezinak zirela ere bai- trumoiaren hotsa, haizea, hegazkinak, helikopteroak, eraikin beraren mugimenduak, modu jakinean isilduak zeuden, irekitzen ez ziren leiho lodien bitartez. Nere lana soinu horiek gelara bueltatu eta zentzu batean bizira bueltatzea izan zen."*

Soinu ixil hauen bilaketan, modu hortako espermentuak egin dituen edozeinek ziurta dezaken bezala, intimitatea pisu haundiko sentsazioa bihurtu ohi da, eta kasu honetan bereziki konposatzaileak eraikinarekin bat egiteko prozesu hori era berezian bizi izan zuen: "Denbora gehienez aurikulareen bitartez entzun ohi nuen. Arraroa da imajinatzea ordurarte hain zapaltzailea iruditu zitzaidan eraikin haretan esperientzia goxorik imajinatzea, baina, bakarrik, jarrita, gaueko ordu txikietan, eraikinarekin konektatu egin nuela sentitu nuen batzuetan, bertze inork egin ez duen bezala."

Kontaktu mikrofonoek bada, etxearen leihoek jaso zituzten bibrazioak erreproduzitzeko aukera eman zioten artistari eta fotozelulek berriz inguruneke argi mota guztiak soinu bihurtzekoa. Ez da erran beharrik iturri hauek erlatiboki aurreikusi ezinak direla, hau da

instrumentu akustiko edo elektriko baten aldean, nolabait errateagatik, kontrolaezinak direla.

Baina soinu iturriak bilatu eta jasotzeko modu honetako aurreikusi ezinezko teknikak erabili eta erabiltzen baditu, gero, edizioan edo estudio lanean ere, gisako premisetan oinarritzen da, ezagutu gabeko emaitzen bilaketan, zuzenagoak izateko, inprobisazioan. Honek ordea ez du erran nahi bere konposizioek erritmo zuzenetatik edo melodietatik ihes egiten dutenik, inprobisatzeko metodo aunitz erabiltzen baititu, konposizio estilo garbietara mugatu gabe.

Bere lana bada, soinu testuraz, mikrosoinuz eta bertzelako interferentzia nahiz esperimendu elektroniko, elektriko eta akustikoz osatzen da, poliki barneratzen eta sonikoki aberatsak bezain ederrak diren konposizioak sortuz.

*“Soinuen arteko konbinazioak ez dira lojikalak gidatutakoak, inpresioetan eta gustuko konbinazioetan baizik. Beharbada emaitza abstraktua balitz bezala uler daiteke, baina nere buruan, sortu ditudanez gero, bakoitzak bere hiztegi propioa eta bere narrazioa dauka.”*

Vitiellok ahortzi ezin den kolaboratzaile taldea izan du alboan, ez nolana hikoia gainera. Hauen artean aipagarriena Pauline Oliveros amerikar elektronikaren aitzindarietakoa eta akordeoilari bikaina izan da.

Baina ezin ditugu ahaztu Andrew Deutsch, Yasunao Tone, Tetsu Inoue, Rebecca Moore, Frances-Marie Uitti, Joan Jeanrenaud edo Scanner musikari elektronikoko ingelesa, bertzeak bertze.

Musikaz gain, hasieran erran dugun bezala, Vitielloren lanak bideoarekin erlazio estua mantentzen du. Izan ere berak aipatu izan duen moduan, bideoaren eta musikaren arteko lotura hain da estua batzuetan bata bertzea gabe ulertzeko gaitasuna galtzen dugula. Hortaz bi alor hauetako artistak elkarlan garrantzitsuak sortu dituztela ukazina da, kasu aunitzitan (eta berriz ere teknologien gaiari erreferentzia eginez) bideoartista eta musikaria bat egin arte.

Adibide gisara, Vitiellok berak Nam June Paik bideoartistarekin ikasi zuen, eta gaur egungo nazioarteko bideo artista garrantzitsuenetakoa den Bill Violak David Tudor konposatzailearekin.

Are gehiago erran genezake, New Yorkekoaren kasuan, bideoaren mundua izan baitzen ordurako ezezaguna zen bere lana argitara emateko bultzada eman ziona. Hain zuzen, berak onartu duenez, Tony Oursler artistak bere filma baterako eskatutako enkargu bat izan zen Vitielloren ibilbide musikala martxan jarri zuena: *“Ez nintzen musikan interesatutako musikaria bilakatu, artista bisualekin lan egiten hasi eta hauek irudiak prozesatzeko erabiltzen zituzten bide berak musikan aplikatzen hasi nintzen.”*

Bi espresabide hauen arteko nahasketaren aberastasunaz eta aukerez oharturik Vitiellok dualitate gisako batean lan egin duela erran genezake, bere lanei ere arima bikoitza bezala defini dezakegun nortasuna emanez.

Bere soinu lanek, bideolanak bailiran, nolabait gure ingurunearen (ez beti lehenbiziko bistadan ikus dezakegun ingurunearen) soinu filmak sortzen dituzte, soinua, esperientzia bisual bihurtu arte. Bideolanek aldiz, ikusleok irudiak jasotzerakoan askotan ohartu gabe, (beharbada ebidentziak ekiditzearen) alde batera edo bigarren mailan uzten dugun soinuaren garrantziaz ohartarazten gaituzte. Bertze modu batean erranda, Vitiellok arte bisualen teknikak erabiliz soinua arte forma multidimentsional bat bihurtzen du.

Irudiekin lotuta dauden lanen artean, filma independenteentzako, cd-romentzako nahiz bideo esperimentalerako musikak edo arte instalazioak aurki ditzazkegu.

Ezin dugu ahanzi ere interneterako egindako lanak, eta hauen artean bereziki Dia Center erakundearen enkarguz sortutako *Tetrasomia* obra. Bere ibilbide artistikoan konstantea izan den soinu ezezaguen bildumak sortzeko ideari jarraituz, sarean zehar bilaketa sakona egin zuen Vitiellok, bilduma pertsonaletatik hasi eta intsektuen datubaseak arakatuz, musikalak ez diren soinuen bila. Berriz ere Murray Schaefferrek ohartarazi zuenari, desagertzen eta etengabe aldatzen ari den gure ingurunari, erreferentzia zuzena eginez eta lau elementuen arabera antolatuak, hau da, lurra, airea, haizea eta suaren arabera, hamazazpi soinuz osatu zuen webgune interaktiboa, bertzeak bertze lurrazpiko sumendien edo igel pozointsuen hotsekin. Oraindik bisita daiteken orrian gainera ([www.diacenter.org](http://www.diacenter.org)), Stephen Vitiellok elementu bakoitzeko soinuak erabiliz osatutako konposizio bana entzun daiteke.

Baina ibilbide luze eta amaigabe honetan eta bere lanak zein ezagutzak sona hartu duten bitartean, amerikarraren lana ez da zuzenean sormenara mugatu. Arte komisaritzan adibidez aski lan garrantzitsuak egin ditu New Yorkeko Arte garaikidearen museoarentzako edo Withney Museum-entzako. Azken honentzako egindakoa da beharbada erranguratsuenetako bat, museo honek antolatutako *The American Century. Art and Culture: 1950-2000* erretrospektiba garrantzitsuen arte sonoroaren atalaren arduraduna izan baitzen Stephen Vitiello.

XABIER ERKIZIA musikaria, ERTZ jaialdiko antolatzailea eta Artelekuko audio laborategiaren arduraduna da. Beran (Nafarroa) bizi da.

Stephen Vitielloren diskografia:

- *Humming Bird Feeder ver.02*, Lucky Kitchen, 2002
- *Bright and Dusty Things*, New Albion Records, 2001
- *17:48 from the Texas Gallery*, Texas Gallery, 2001
- *Sounds Building in the Fading Light*, 10" vinyl Creamgarden, 2001
- *Scratchy Marimba*, Sulfur U.S./Sulphur U.K., 2000
- *Bite the Neighbor*, 3" CD, iea, 2000
- *Fantastic Prayers*, CD ROM Constance De Jong eta Tony Ourslerekin 2000
- Elkarlanean, Dia Center for the Arts and Prop Foundation, 2000
- Uitti/Vitiello, 3" CD, JDK Productions, 1999
- *The Light of Falling Cars*, JDK Productions, 1998
- *Chairs Not Stairs*, 1996
- *Enredando as Pessoas, Intriguing People*, EMVIDEO, 1995